

Burnia

Gipuzkoak burdinaren hustiapen eta lanketan eraman duen iharduerak, Oiartzungo meatzei buruzko lehen berrietatik hasi eta, aro zabalak besarkatzen ditu, guretzat oso gutxi ezagunak. Idatziriko hitz argiemailea falta zaigu eta horren eza, hein batetan eta beste disziplinen artean, arkelogoaren ekarri baliosak, geologi eta etnografi ikerketek betetzen dute.

Burdingintza, zehazki, Erdi-Aro Beherean egindako ihardueraren bidez iristen zaigu. Erdi-Aroa nekazaria da eta gizonak lurrarekin ditu bere harremanak.

Nekazaritzaren bilakaerak berarekin ekarri zuen tresna desberdinak erabili beharra. Aitzurra goldea baino lehenagokoa da eta, Lynn White-k dioenez, goldearen bidez erabiltzen da lehenengo aldiz nekazaritzan gizonarena ez den indarra. Guk honi zera erantsiko genioke: gertaera hau garrantzi handikoa dela eta zerikusi zuzena duela arlo sozio-ekonomikoarekin.

Burdina lehenbizian armak eta ebakitzeko tresnak egiteko erabiltzen zen; horretarako, bereziki. Gero, Erdi-Aroko nekazaria gero eto gehiago baliatzen zen metale honek eskaintzen zizkion abantailaz eta errementeria gizartean norbait inportantea izatera heldu zen. Ikus daitekeenez, guzti honen atzetik burdinoletoako hauspoa dago.

Aita Larramendik industria hau goraiatzen du eta berak dioenez, «Gipuzkoa sutegi, lama eta sugarren lurra da bere burdinola handi eta txikitetan».

Behin eta berriz esan izan denez, hasierako burdinola mendian aurkitzen zen. Industria arrunt haiek, besteak beste agorrolak eta aizeolak deituak, beren egitekoa ahalik erosoan egiteko lekuan eraikitzen ziren; meatzen eta, batez ere, arboladien hurbiltasuna kontutan harturik egiten zuten lan.

Altuerako burdinolak desagertuz joan ziren, errekonduan eraikitakoak ugarituz zihoazen heinean. Mendikoak piskanaka-piskanaka desagertu ziren energia hidraulikoaren poderioz, denboran ez baitatoz bat, batetik gauza baten ezagutza eta, bestetik, haren erabileraren hedakuntza.

Eskuartearen dudak Zegamako olagizonei zuzenduriko 1798.eko expidienteeak, hain zuzen, arestian aipatu dudana sendotu egiten du:

«Eginahalak egin dira -dio delako komunikatuak- herri honetako olagizonek mea kiskaltzeko labeak egin ditzaten, Partzoneria honetako mendiei kalte haundiak baitakarzkie oinetik ebakitako zuhaitz-enborrez kiskaltzeko metodoak; baina, ikusten dudanez, idea probetxugarri hau martxan jarri duzun bakarria Zu izan zara, bestetan oraindik indarrean baitago lehengo ohitura zaharra (...).»

Indar hidraulikoz mugitzen ziren zearrolen edo burdinolen gero eta garrantzi handiagoko produkziogintzak merkatalgoa gero eta gehiago indartzea ekarri zuen ondorio gisa eta, honekin batera, industria honi loturiko familiak agertzea.

Burdingintzak mota asko eta desberdinetako burdinolen aurrean jartzen gaitu; horien artean aipatzekoak dira Gipuzkoan arma-industria eta aingurera; «horiek ematen dute bertakoen izpiritu, arintasun eta abileziaren berri».

XV. mende-bukaeratik XVIII.a bitarte hori izan zen burdinolen arorik eman-korrena, eta azken mende honetan gertatutako fabrika-iharduera honen atzerapenak zerikusirik badu hein haundi batetan Euskal Herriaren krisi ekonomikoan. Eskura datorkidanez gero, esan dezadan hemen Ingalaterrak ezagutu zituela ikatz mineralaren abantailak eta ongi jabetu zela kokikatzaren errendimenduz XVIII. mendearen hasieran.

Korregidoreak Gipuzkoa probintziara 1756.ean igorritako txostenean hauxe irakur daiteke:

«Zuk daukazun fondo indartsu bakarria mendia eta burdinolak dira; horiek dira probidentziak emandako ondasun bakarrak, ukatu zizkion beste ondasunen ordaingarri (...) Industria edo merkatalgoa, Probintzia edo Erreinu osoko arima dena, izadiak ukatua erreparatzen edo gehitzen duena, hain dago eskasturik Probintzia honetan, ez baita ezagutzen, eta hain ahitua, zalantzan jartzen baita sekula egon denentz».

Burdingintzan zihardutenen aldeko politika markatzeko eskatzen da 1821.ean; hain zuzen ere, burdinolen beherakada arras baturik dator arbola-diak uztearekin.

Gipuzkoako industri sustaketarako Batzarrea 1830.ean eratu zen,

«Euskal Herrian burdingintzaren sektore interesgarria lurjota zegoen garaian; Diputazio Apartekoak sektore horren garrantzia gogoan har zezan eskatu zion Batzarreari (...).»

Gipuzkoako burdinolak, J.I. Telletxea Idigoras-ek dakarrenez, larogeita bost inguru ziren XV. mendearen azkenaldira; XVIII. mendearen azkenaldira zenbatutakoak berriz, hirurogeita hamalau, mila kintal inguruko produkzioarekin burdinola bakoitzeko eta urteko.

Gipuzkoako Azken burdinola 1880.ean desagertu zen. Burdingintzaren eboluzioa, mendiko agorrolatik hasi eta gaur egunotako industria bitartekoa alegia, garaiak hala agindurik, gero eta bizkorragoa izan da. Horregatik burdina Gipuzkoan gaiaz hitzegiteak ez du esan nahi iraganaldira begiratzea; aitzitik, fabrikagintza garrantzitsu baten oraina ikustea suposatzen du.